

DONOSTIA / Urgulleko Liburutegia egunero zabalik egoten da, udaran, eta eskaintza zabala du umeentzat

Izaro Arroita

Martin Zikinen liburua hartu du Beatrizek Urgulleko udal liburutegian sartu eta berehala; asko gustatzen zaio irakurtzea. Hamaika urte ditu, eta lehengusuak ekarri ditu bera eta Begoña, ahizpa txikia. Zazpi urte ditu Begoñak, eta nahiago izan du Txanogorritxoren liburua. Berak ere irakurtzea maite du, eta marrazkiak ikustea.

Beatrizek eta Begoñak bezala, ehundaka umek pasatu dituzte udako egunak Urgulleko udal liburutegian. Izan ere, historia luzea du liburutegiak. Oraingo lekuan egon aurretik, alboko eraikin txikian zegoen, eta liburutegi izan aurretik, XIX. mendean, kuartela izan zen. Eraikin txikia, berriz, bolborategia zen, Damen Bateriako panelak azaltzen duenez.

Gaur egun, oso leku gomendagarria da hurrekin joateko, aisialdi taldeek ongi dakiten bezala. Udaran, egunero egoten da irekita, 11:00etatik 13:30era bitartean, eta 17:00-etatik 20:00etara, estropadetan izan ezik. Eskaintza polita du, gainera; liburuez eta ordenagailu jokoez gain, ipuin kontaketak ere eskaintzen ditu bost urtetik gorako umeentzat, astean bitan: astelehenetan 18:00etan euskaraz eta ostegunetan 18:00etan gazteleraz. Eta ostegunetan, abuztuaren 10ean, Sebastopoleko Titiriteroen emanaldia izango da 18:00etan, gazteleraz.

Hiru ordenagailu daude liburutegian. Lehena katalogoa begiratzeko da, bigarrena sarean nabigatzeko, eta hirugarrena jolasteko; lau CD-Room dituzte jokoz beteta. Ilarak izaten omen dira ordenagailuetan haur taldeak liburutegira joaten direnean. Beste batzuek, hala ere, nahiago izaten dute liburu bat hartu eta kanpora atera. Eta badazpada, helduentzako aldizkari eta liburu batzuk ere badira. Haiek ere goza dezaten.